

Artezkaritza-kontseilua eta zaintza batzordearen berritzea

Bazkide agurgarria:

Artezkaritza-Kontseiluak, bertako eta Zaintza Batzordeko partaideen berritze prozesua hasiko duela jakinarazi nahi dizu. Prozesu honen helburua familien parte hartzea bermatzea da gurasoon ordezkari izango diren kide berrien aukeraketan. AKn gauden guraso ordezkariok Ikastolako familia guztiak ordezkatzeko ditugu eta bertan eztabaidatu eta erabakitzen diren gaitara familien ahotsa eraman behar dugu. Garrantzitsua da organo horretan familien kezka, postura eta ikuspuntu anitzak mahairatzea. Zaintza batzordearen zeregina, Batzar Orokorrari aurkeztu baino lehen, urteko kontuak ikuskatu eta horiei buruz eta soberakinak banatzeko eta galerak egozteko proposamenari buruzko txostena egitea da, kooperatibaren urteko kontuak auditatzen direnean izan ezik.



Hurrengo **azaroaren 16an** egingo den Batzar Nagusian **Artezkaritza Batzordeko 3 kide** eta **Zaintza Batzordeko beste 3 kide ordezkatu** dira. Hori dela eta, Artezkaritza Kontseiluko edo Zaintza Batzordeko kide izatera animatu nahi zaituztegu, urriaren 10a baino lehen artezkaritza@udarregi.eus e-postara idatziz.

Informazio gehiago beharko bazenu, idatzi lasai artezkaritza@udarregi.eus helbidera.

Aldez aurretik eskerrak emanek.

Artezkaritza Kontseilua

Idazkaritzako ordutegia

Jakinarazten dizuegu hemendik aurrera Idazkaritzako bulegoa 8:30 - 9:30 eta 12:00 - 14:00 ordutegian egongo dela irekita. Era berean, gogorarazten dizuegu, idazkaritzarekin harremanetan jartzeko usurbil@ikastola.eus helbidera idatz daitekeela.



Jangela-zerbitzuaren oharrak

❖ **Urriko menua:** zerbitzua lehenengo egunetik eskaintzen da eta hilabete honetan emango den menua honakoa izango da:

- 0 – 3 urte. [Urriak 1etik 15era](#) eta [urriak 16tik 31ra](#)
- 3 – 16 urte. [Menu arrunta](#)
- 3 – 16 urte. [Intolerantziadun menua](#)



Jantoki-zerbitzua bi txandatan eskaintzen da:

- **Lehen txanda:** 12:30etik 13:30era. HH 3., 4. eta 5. Mailako, LH 1. eta 2. Mailako eta DBH-ko ikasleentzat. Ondoren, zaintza zerbitzua eskaintzen da.
- **Bigarren txanda :**13:30etik 14: 30era. LH 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleentzat. Aurretik zaintza zerbitzua dago. **Txanda horretako ikasleek 12:30etik 13:30era eta DBH-ko ikasleek 13:30etik 14:30era jantoki-zerbitzutik irten ahal izango dute gurasoen idatzizko baimenarekin.**

Izen-ematea: norbaitek jangela zerbitzua erabili behar izanez gero edo izena emanda egonik ere ez badu zerbitzua behar, usurbil@ikastola.eus helbide elektronikora mezua bidaliz jakinaraziko du, gutxienez, bezperan 13:00ak aurretik. Horrela egitea ezinbestekoa baldintza izango da menuaren deskontua aplikatu ahal izateko. Deskontua ez da irteeretakoa egunetan aplikatuko, kalkulua egiteko garaian egun horiek kontuan izan baitira.

Taula honetan ikus ditzakezue ikasturte honetarako jangela- zerbitzuaren prezioak.

		2023-2024 ikasturtea									
Zerbitzu Egunak		20	20	12	18	19	16	17	22	144	
Bazkaldarraren perfila	kuota	urria	azaroa	abendua	urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	Guztira	
Hilabeteke erabakiko du jangelara etortzea edo ez	H	130,00 €	130,00 €	78,00 €	117,00 €	123,50 €	104,00 €	110,50 €	143,00 €	936,00 €	
Asteko 5 egunak etorriko da ikasturte osoan	H5	117,00 €	117,00 €	117,00 €	117,00 €	117,00 €	117,00 €	117,00 €	117,00 €	936,00 €	
Astean 4 egun etorriko da ikasturte osoan, eta egun finkoak dira	H4	106,13 €	106,13 €	106,13 €	106,13 €	106,13 €	106,13 €	106,13 €	106,13 €	849,05 €	
Astean 3 egun etorriko da ikasturte osoan, eta egun finkoak dira	H3	73,49 €	73,49 €	73,49 €	73,49 €	73,49 €	73,49 €	73,49 €	73,49 €	587,88 €	
Irailan eta ekainean egun solteak	E	8,00 €									
Menu Solteak	S	8,00 €									

H kuota: hilabetez hilabete erabakiko du jangelara etorri ala ez.

H-5 kuota: urritik maiatzera bitarte egunero etorriko da jangelara.

H-4 kuota: urritik maiatzera astean 4 egunetan etorriko da jangelara, egunak zehaztuta egongo direlarik.

E kuota: iraila eta ekaineko egun bakoitzeko prezioa.

S kuota: eguneko prezioa da, gainontzeko kuotak aplikatzen ez diren kasuetan erabiliko da urritik maiatzera bitarte.

Txokolatedun egutegiaren salmenta

Hendaiako **Gure Ikastolatik** beraien **txokolate-egutegien** salmenta-kanpainan laguntzeko proposamena jaso dugu.

Egutegi horretan, abenduaren 1etik 24ra bitartean, egunero irekitzeko leihotxoak aurkitzen dira eta leihotxo bakoitzaren atzean, txokolate bat edo egun bereziren batean bina ere agertu daitezke. Olentzero eta Maridomingi ere hor dabilta!

Txokolateak Baigorriko Laia txokolategikoak dira eta auzolanean gurasoek sartzen dituzte txokolateak kaxetan. Diseinua Asisko Urmeneta marrazkilariak egin da, eta egutegiari bertsoa Amets Arzallus bertsolari eta Ikastolako ikasle ohiak jarri dio.

Egutegi honen **salneurria 10€**-koa da.

Erosi nahi duenak, bete [Txokolatedun Egutegia](#) inprimakia, **azaroaren 10a baino lehen**.



Ibilbideen eguna

Igande honetan, urriaren 22an, Buruntzaldeako ibilbideen 15. eguna ospatuko dugu, 8:00-14:00 bitartean. Ibilbide zirkularra izan arren, bide zati ezberdinak egin ditzakezue, luzera eta iraupena egokituz. Itzulerarako autobusa egongo da Andoain, Urnieta zein Lasartetik (txakurrak eraman ahal izateko "kaiolak" egongo dira). Anoa puntuak ere egongo dira herri guztietan eta bertan ibiltari txartelean zigiluak lortu ditzakezue. 3 zigilu ezberdin lortuz gero, oparitxo jasoko duzue.

Animatu familian, giro aparta dago aurreikusita: 18º eta euririk ez.

Ezagutu gure inguruak, izan osasuntsu eta aktibo!

[Informazio gehiago](#)



"Gatazka, ataska edo aska?" Helduentzako Ikuskizuna

Hitz Aho Guraso Elkarteak, erlazio kudeaketan oinarritutako ikuskizuna antolatu du helduentzat.

Nerea Mendizabal Psikopedagogoak eta Itziar Saenz De Ojer "Pituxa" Pedagogoak harremanen inguruan hausnartzeko begirada umoretsua duen kantu eta elkarrizketa saioa eskainiko dute.

Komunikazio ez bortitzaren ikuspegia antzerki, umore, musika eta edukiekin nahastutako ikuskizun dibertigarri honek edonorentzat esanguratsuak zaizkigun egoeretatik askatzeko arintasuna eskaini nahi dira."

Eguna: Azaroak 8

Ordua: 17:30

Iraupena: 75 minutu

Non: Sutegin



Haurren aurrean helduok heldu ekimena

Guraso eta zaintzaileei euren arteko, hau da, HELDUEN ARTEKO, euskararen erabileran eragiteko eta umeeikiko hizkuntza eredugarritasuna bultzatzeko ekimena da haurren aurrean helduok heldu.



NORK PARTE HAR DEZAKE?

0-12 urte bitarteko umeeekin harreman zuzena duten eta hizkuntza transmisioan zein eredugarritasunean eragina duten helduak dira ariketako xede taldea: gurasoak zein zaintza lanetan aritzen diren bestelako senide eta herritarrak.

NOIZ IZANGO DA?

2023ko urriaren 19tik 29ra.

NON EGINGO DA?

Euskal Herri osoko hainbat herritan antolatuta da ekimena.

Gurasoak eta umeak elkartzen diren inguru informaletan nagusiki (parkeak, eskola kanpoaldea, plazak, etxea, ...).

NOLA PARTE HARTU ARIKETAN?

Herriz herri antolatuko diren ekintzetan hartu daiteke parte, bertan bilduko diren gainerako gurasoekin egin dezakezu hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala: informatu zure ingurua ariketa egitera zoazela eta eman ekintzen berri.

Ariketa soziala egin tokian toki proposatutako ekintzetan:

1. Euskaraz ondo moldatzen bazara:

- Lehen hitzak euskaraz egin, euskara ulertzen duten ezagunei zein ezezagunei.
- Ulertzen duten kideekin eutsi beti euskarari, baita hauek erdaraz hitz eginda ere.

2. Hitz egiteko zailtasunak badituzu, baina ulertzen baduzu:

- Gonbidatu zure ingurukoak euskaraz jarrai dezaten /aritu daitezen zurekin.

Usurbilen abiatu da “Haurren aurrean helduok heldu” ariketa soziala.

Eguna: Urriak 20, ostirala

Ordua: 17:00

Tokia: herriko erdigunea.

Egitaraua: **Jokai** euskal mitologian inspiratutako jolas kooperatiboetan parte hartu eta, ondoren, txokolate jana.

“**Haurren aurrean helduok heldu**”, guraso eta bestelako hezitzaileen arteko hizkuntza-praktikak aldatzeko eta euskara gehiago erabiltzeko aktibazio ekimena da. Urriaren 19tik 29ra bitartean, ekintzak proposatuko zaizkie guraso eta zaintzaileei, euren arteko euskararen erabileran eragiteko eta umeeikiko hizkuntza eredugarritasuna bultzatzeko”.

Ikastolako guraso Carola eta Anderri eskertza

Ikastolaren izenean, bertako guraso ditugun Carola Giraudo eta Ander Zuloagari eskerrik beroenak helarazi nahi dizkiegu.

Haurrentzat eredu garenez, helduon artean euskararen erabilera sustatzea asmo duen "Haurren aurrean helduok heldu" ariketa sozialaren aitzakian, euskararen aldeko irudi zein mezu ederrak sortu eta guztion eskura jarri dituzte.

Ekintzailetasunean ere eredu, bejondeizuela!



ARI ETA ARI,
EZ ETEN HARI!
HARK NIRI
NIK ZURI
EUSKARA OPARI

Euskararen alde, azaroaren 4ean denok Bilbora!

Euskalgintzaren Kontseiluak antolatuta, azaroaren 4an, 17:00etan Bilbon egingo den manifestaldirako gonbitea luzatzen dizuegu. Hona [hemen esku-orria](#) xehetasun gehiagorekin.



Ikastolak, Noaua! Kultura Taldearekin batera, autobusa antolatuko du Bilbora joateko. Autobusaren prezioa, **17 euro** ingurukoa izango da (izena ematen duten pertsona kopuruaren arabera). Izena emateko bete [inprimaki hau](#), urriaren 26a baino lehen.

HAUR HEZKUNTZA

1-2 gelako guraso bilera

Datorren asteazkenean, Urriaren 25ean, 1-2 adin tarteko haurren gela-bilera burutuko da. Talde bakoitza bere gelan elkartuko da arratsaldeko 17:30etan.

* Bilera ahalik eta egokien egin ahal izateko seme alabarik gabe etortzea eskatzen da.



2-3 gelako guraso bilera

Azaroaren 8an, 2-3 adin tarteko haurren gela-bilera egingo da. 2-3 urteko geletan elkartuko dira arratsaldeko 17:30etan.

* Bilera ahalik eta egokien egin ahal izateko seme alabarik gabe etortzea eskatzen da.



HH3koen guraso bilera orokorra.

Urriak 31, 16:45etan. Bilera, haurren geletan egingo dugu. Bilerak euskaraz egingo dira. Inork itzulpenik beharko balu, TELEGRAM aplikazioa instalatuta ekarri beharko du mugikorrean, aurikularrekin batera.

Txosten orokorra, bilera aurretik jasoko duzue eta bilera egunean, zalantzak argitzeko tartea eskainiko da.

Zaintza zerbitzua egongo da.



Liburutegien eguna

Usurbilgo Udal Liburutegitik idazten dizuegu. Urtero bezala, udazkenean **hainbat ekintza** prestatu dugu haur eta gaztetxoentzat; horietariko **lehenengoaren berri eman nahi dizuegu**, beste behin.

Urriaren 24an Liburutegien Eguna ospatzen da; eta guk ere egun hori gogoan izan dugunez, saio berezi bat antolatu dugu. Hauexek datuak:

URRIAREN 24an, asteartea, 18:00etan, SUTEGI ARETOAn, 4tik 11 urtera bitarteko haur eta gaztetxoentzat, ITZAL-ANTZERKIA: ENPERADOREAREN KONDAIRA ikuskizuna; antzerkia, magia, itzalak, malabareak...



LEHEN HEZKUNTZA

Zorriak LH4

LH 4-ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Irteera LH4

Eguraldiak laguntzen badigu, datorren ostiralean, urriak 27, Usurbildik Aginagara oinez jon-etorria egiteko asmoa dugu. Egun osoko irteera izango denez, honako hauek eramatea gomendatzen dizuegu:

- Arropa eta oinetako erosoak.
- Hamaiketakoa, bazkaria eta ura.



Irteera kobrantza LH5

Datorren ostirala, urriak 27, LH 5. mailako ikasleek Arritxulora egindako irteeraren 1. zatia kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **25,60 €** izango da.



Euskarazko liburuen truke-azoka eta laguntza eskaera

Datorren ostiralean, urriaren 27an, euskarazko liburuen truke-azoka eginu dugu LH1, LH2 eta LH3ko ikasle eta euren gurasoekin Agerialdeko patioan.

Datorren astean zehar ekimenean parte hartu nahi duten haurrek beraien euskarazko liburu edo ipuin bat (egoera onean dagoena) ekarri beharko dute ikastolara. Irakasleek jasoko dituzte liburuok eta txartel bat emango diote haurrari liburuko.

Ostiral arratsaldean txartel honekin aterako dira haurrak 16:30etan eta zuen laguntzarekin burutu beharko dute trukea.

Laguntza behar dugu:

- * Jasotako liburuak mahaietan antolatzeko (16:00ak inguruan)
- * Trukea modu antolatuan burutzeko (16:30etan hasita)
- * Amaieran, gauzak jasotzeko.

Laguntzeko prest zaudetenok, idatzi mesedez euskarazgattunk@udarregi.eus helbidera.



Pantailen erabilera egokiaren deskargua

Datorren asteartean, urriak 24, arratsaldeko 17:30ean MIREN ROS izango dugu gure artean, Teknologia Berrien inguruan hausnartzeko asmoz. LH5- 6- DBH1 eta DBH2ko gurasoei zabaltzen zaizue deialdia. Gai horren inguruan ikasleekin joratu dena azaltzeaz gain, guraso bezala dituzuen kezka aditu bati azaldu edota galdetzeko aukera izango duzue bertan.



Data: urriak 24, asteartea

Ordua: 17:30etatik 19:00etara (gutxi gorabehera)

Lekua: LHko eraikineko 2. solairua

Liburutegien eguna

Urriaren 24an Liburutegien Eguna ospatzen da; eta guk ere egun hori gogoan izan dugunez, saio berezi bat antolatu dugu. Hauexek datuak:

URRIAREN 24an, asteartea, 18:00etan, SUTEGI ARETOAn, 4tik 11 urtera bitarteko haur eta gaztetxoentzat, ITZAL ANTZERKIA: ENPERADOREAREN KONDAIRA ikuskizuna; antzerkia, magia, itzalak, malabareak...



BIGARREN HEZKUNTZA

Sexu-heziketa saioa

Sexu- heziketako ikastaroa dela eta, taldea sortu denez, DBHko 1 eta 3ko gurasoei saio bat eskainiko zaizue gai horren inguruan ikasleekin joratu dena azaltzeko. Bertan, guraso bezala dituzuen kezka aditu bati azaldu edota galdetzeko aukera ere izango duzue.



Data: gaur, urriak 20, ostirala

Ordua: 17:00etatik 19:00etara (gutxi gorabehera)

Lekua: DBHko eraikina

Pantailen erabilera egokiaren deskargua

Datorren asteartean, urriak 24, arratsaldeko 17:30ean MIREN ROS izango dugu gure artean, Teknologia Berrien inguruan hausnartzeko asmoz. LH5- 6- DBH1 eta DBH2ko gurasoei zabaltzen zaizue deialdia. Gai honen inguruan ikasleekin joratu dena azaltzeaz gain, guraso bezala dituzuen kezkak aditu bati azaldu edota galdetzeko aukera izango duzue bertan.

Data: urriak 24, asteartea

Ordua: 17:30etatik 19:00etara (gutxi gorabehera)

Lekua: LHko eraikineko 2. solairua



Menpekotasunaren inguruko hitzaldia

Urriaren 30ean, astelehena, DBHko guraso zaretenontzat, Zer egin menpekotasunaren aurrean (alkohola, mugikorrak, jokia...) guraso bezala?", gaiaren inguruan hitz egingo duen aditu bat izango dugu gure artean, IZAR ARREGI. Gaia interesatzen zaizuen guztiak gonbidatuta zaudete, baina aurrez izena eman beharko duzue.

Data: Urriak 30, astelehena

Ordua: 17:00etatik 19:00etara (gutxi gora-behera)

Lekua: DBHko eraikina

Kide kopurua: Saioa aurrera atera dadin, gutxienez 10 lagunek eman beharko dute izena.

Izen ematea: [galdetegi hau](#) bete, urriak 25, asteazkena, baino lehen.

